



EUSKERA

Nazioarteko Eguneko Mezua
LIBURUEN ARGITAN

Bi anaiak munduko bolekin jolas egin ohi zuten. Etengabe birarazten zituzten bolak, eta, halako batean, begiak itxita, hatzarekin puntu bat adierazten zuten, ausaz. Begiratu, eta puntu hura Pekin, edo Madagaskar edo Mexiko bazen, hatzaz ukitutako toki haietako historiak zekartzaten liburuak bilatzen zituzten apaletan.

Asko atsegina zuten irakurtzea. Irakurtzen asko gozatzen zuten. Haien leihoko argia oso berandu arte egoten zen piztuta.

Liburuen "argitan" Txinako Harresi Handian barrena ibiltzen ziren, Ozeanoko abestia entzuten zuten bikingoekin, Egiptoko piramideetatik hurbil bizi ziren, aintzira izoztuen gainean lera ibiltzen ziren eskimalekin, antzinako Olinpiar Jokoetan parte hartzen zuten eta olibondo adarrez koroatzen zituzten.

Lokartzen zirenean, ipuinak, historiak, elezaharrak, lurraldeak, idazleak eta heroiak agertzen ziren beren ametsetan, denak joaten baitziren bi anaiak goxo-goxo kulunkatzera: Esopok bere fabulak kontatzen zizkion Sahrazadi, Eiffel dorrearen goretetik, Tom Sawyerrek Mississippi ibaian ontzi batean egindako bihurrikeriak entzuten zituen Kristobal Kolonek, Alice Lurralde Miresgarrira zihoan lera batean, Mary Poppinsen eskutik, eta Andersenek ipuinak kontatzen zizkion Ananse armiamari, piramide baten alboan.

Munduko bolaren jolasaren eta liburuaren arteko konbinazioak asko dibertitzen zituen bi anaiak, amairik gabea zelako. Nabigatzaile eta esploratzaile izateko modua aurkitu zuten liburuetan. Haien "argitan", planeta konkistatzen zuten; hainbat zibilizaziotan bizi ziren, hainbat garaitan; munduaren aniztasuna miresten zuten. Hitz gutxitan, mundu zabaleko bizitza aurkitzen zuten, beren gela txikitik urrun, hara eta hona hegan, hara eta hona bidaiari eta ametsetan.

Eta, jakina, ahaztu egiten zitzaizkien argia itzaltzea!

-Haurrak, Noiz lokartuko zarete? -errieta egiten zieten gurasoek-. Berandu da. Itzali argia!

-Ezin dugu, erantzuten zuten beraiek barrez. Liburuaren "argia" ez da inoiz itzaltzen.

Angeliki Varella
(Traducción Itzulpena Miren Arratibel)